

*Joseba Arriaga futbol jokalaria*

# “Athletic-en jokatzean txikitako ametsa bete dut”

**20 urte bete berri ditu eta pasa den Irailaren 1ean egin zuen debuta Anoetan Athletic-eko lehen taldearekin. 13 urte zituenetik da Lezaman eta talde zurigorriko maila ezberdinetan aritu izan da. Familia Athletic-zalea izan du betidanik eta bera bezala oso pozik daudela aitortu digu nahiz eta hankak lurrean izan nahi dituela aitortu digun.**



**- Zenbat urterekin hasi zinen futboleko jokatzean?**

6 urterekin Teodoro Zuazuako ikastetxean futbitoan hasi nintzen. Ondoren Ermuko taldean eta azkenik kadete mailan nintzela, Lezamara eraman ninduten.

**- Geroztik Athletic-eko maila ezberdinetan aritu zara....**

Urtez urte mailaz igotzen joan naiz. Iaz Bilbao Athletic-en aritu nintzen eta 15 gol sartu nituen.

**- Betidanik izan al zara golea-tzailea?**

Atearen aurrean beti izan dut golak egiteko dohaia.

**- Aurten lehen mailako taldean aritzeak zer suposatu du zuretzat?**

Nire txikitako ametsa egi bihurtzea. Betidanik izan naiz Athletic-zalea nire sendia bezalaxe. Urte askotako lanaren ordaina da.

**- Ikasketak alde batera utzi al dituzu?**

Iaz utzi nituen. Goiz eta arratsaldean entrenatu behar izaten baikenuen. Dena den, berriz ekin diot eta Eibarren

Marketing Komertziala ikasten ari naiz.

**- Zer moduz konpontzen zara Urzaiz, Gorrero eta abarrek?**

Lehen taldera igo ginenetik laguntzeko prest agertu zaizkit. Taldean bat gehiago naiz. **- Denboraldia titular hasi zara. Debuta ere Derbi batean...**

Ezin da ez, gehiago eskatu. Dena den Derbian galdu izanak pena eman zidan. Denboraldia ondo hastea beti da garrantzitsua. **- Egindako partiduez gustora? Aukerak ere izan zenituen...**

Lehen zatian Errealaren bigarren golera arte ondo aritu ginen. Orbaizen lesioa nabaritu genuen baina hala ere nire lanarekin gustora geratu nintzen. **- Gurasoak ere Anoetan ziren ikusleen artean...**

Han izan ziren biak. Urduri xamar egongo zirela pentsatzen dut baina hala ere nire debutarekin pozik.

**- Kazetari eta zaletuen zama zer den ikasi beharko duzu... Apurka-apurka moldatu beharko naiz. Kazetariekin**

**Atearen aurrean beti izan dut golak egiteko dohaia**

**PUB YOMY**  
Zubiaurre kalearen bihotzean

**BAR**

**MUGA**  
San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

oraindik asko daukat hobetzeko. Euskaraz ere ez daukat erreztasun handirik baina dena den ETBn elkarrizketa ere egin zidaten. Zaletuei dagokienez, geroz eta jende gehiagok agurtzen nau eta horrek poztu egiten nau.

**- Askok aldatu zara?**

Lehenengo berbera izatea nahiko nuke. Koadrilarekin atezatzen segi, lagunartea mantendu. Hankak lurrean izan behar dira.

**- Futboleko geroz eta garrantzi gehiago du harrobiko lanak...**

Dudarik gabe. Aurten lehen taldera jende berria etorri izana ondorengoentzat ere oso garrantzitsua da. Aukerak dituztela esan nahi du horrek. Azkenaldian gainera, futboleko fitxajeak geroz eta urriagoak dira beraz harrobiak eman-gitu etorkizuneko izarrak.

**- Ermuarrak Lezaman bat baino gehiago izan dira...**

Iaz Gorka Sanchez nirekin aritu zen Bilbao Athletic-en. Aurten beste talde batera utzita joan da baina oraindik aukerak izan ditzazke. Etorkizunean ere izango dira ermuarrak.

**- Futbolaz gain beste zaletasunik?**

Zinea oso gogoko dut. Filmak alokatu eta lasai lasai etxean ikustea. Horrez gain, kirolzalea naiz. Pilota, txirrindularitza..., oso gogoko ditut.

*Asier Ibaibarriaga*



*Argaki press*

## MOTZEAN...

**- Jateko gustokoena?**

Pastazalea naiz.

**- Futbolari bat?**

Romario eta Ronaldo.

**- Futbol zelaia**

San Mames

**- Gol bat sartu nahi zenukeen zelaia?**

Camp Nou-n eta Victor Valdes atezainari.

**- Sartu duzun gol garrantzitsuen...**

Euskadiko Jubenil mailako Kopako finalean garaipena eman zigun hura dut gogoan.

**- Partidu amaiera. Kamiseta aldatzeko ordua...**

Ronaldorekin aldatuko nuke.

**- Bernabeu edo Camp Nou zelaietara sarrera...**

Hasieran ikusmin izugarria piztuko dit. Ondoren ahal den ondoan egin beharko da.

**- Atzelari batzuk errespetua sorrarazten dute...**

Kasu honetan Roberto Carlos esango dizut. Oso indartsua eta bizkorra da.

**- Zure dohai nagusia?**

Jokalari argia izaten saiatzen naiz.

**- Akatsen bat?**

Ez naiz garaiera haundiko mutila. Horrez gain fisikoki indartsuagoa banintz hobe.

**- Futbol zelaian pazientzia galtzen al duzu?**

Pazientzia ezinbestekoa da futboleko. Burua hotza izan behar da beti.

**- Heynckes. Alemanek gogorren fama dute...**

Entrenatzaile eta pertsona ona da. Normala da berak agintzea.

**- Telebista piztu duzu. Zeren bila?**

Telebista asko gustatzen zait. “Cronicas Marcianas” eta “El diario de Patricia” esate baterako.

**- Oporretarako leku bat?**

Nire amaren jaioterria den Vidabella. Orensen dago, Galizian.

**- Neskata bat hurbildu zaizu autografo eske...**

Famatu izateak egia da hortan ere laguntzen duela.

**QUETZAL**  
Opari denda  
Zure gustokoa izan dadila!  
Goienkale kalea  
943 17 00 65

**Proba-Leku**  
Ilea painlequia - Estetika  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

URDAITEGIA - CHARCUTERIA  
**MAYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 72 12  
ERMUA

**CITROËN**  
AUTOS AMEDI  
Izelaieta 23  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

**Pub SCORPIO**  
Zubiaurre, 21  
ERMUA

**ELEKTRIZITATEA**  
**ZUBIAURRE**  
ARGIGINTZA eta HARILKETAK  
Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61  
48260 ERMUA